

NXF-REN PROTOKOLOA, COVID-19AREN AURKA

2021eko NAFARROAKO BANAKAKO XAKE TXAPELKETA

1. SARRERA

Dokumentu honek lehiaketak eta kirol ekitaldiak modu seguruan antolatzeko arau sorta erakusten du. Dokumentu honetan ezarritako neurriek ez dute salbuesten Nafarroako Banakako Xake Txapelketa jokatzeko orduan dagozkien agintariak ezarritako arauak zehatz-mehatz betetzea inolako kasutan.

Covid-19 birusaz kutsatzeko balizko arriskuak ahal den neurrian ekiditeko hartu behar diren neurriak deskribatzen ditu dokumentu honek, 2021eko Adin guztietako Nafarroako Banakako Xake Txapelketari begira.

Aurrez aurreko lehiaketaren jarduerara itzultzeak derrigorrez haxe inplikatzeko du: Pandemia aurretik izandako jokaera ereduak ezin dira berdinak izan, lehiaketa baten antolakuntzan edo parte hartzean sartutako pertsona guztien aldetik.

Nafarroako Xake Federakundean pentsatzen da aurrez aurreko xake jarduera guztietan komenigarria eta beharrezkoa dela segurtasun neurri guztiak hartzea, balizko kutsatzeak eta birusa hedatzea saihesteko: Entrenamenduetan, kirol ekitaldietan eta lehiaketetan. Xakelariak, beste parte hartzaile batzuk, antolatzaileak eta, une batean onartzen bada, ikustera joaten diren pertsonak babesteko.

Salbuespen garai honetan zehar osasun agintariak eta instalazioetako jabeek argitaratutako arau eta protokolo guztiak zorrotz betetzea gomendatzen da. Era berean Nafarroako Kirol Institutuak ezarritako prozedurak zehatz-mehatz bete beharko dira.

Protokolo hau une bakoitzeko egoerara moldatzen joan da. Aldaketak argitaratuko dira Nafarroako Xake Federazioaren webgunean eta dagozkien jokalariei eta klubei jakinaraziko zaie. Osasun agintariak eta Nafarroako Kirol Institutuak ezarriko dituzten irizpideen eta ekarriko dituzten datu berrien menpe egonen dira neurriak, kutsatzeak eta birusa hedatzea saihesteko aldaketak izanik beti.

Beraz, parte hartzaileen eta antolakuntzan sartutako pertsonen banakako erantzukizunari dei egiten zaio, protokoloa betetzeko arduradun bakarrak haiek baitira. Nafarroako Xake Federakundeak ez du bere gain hartzen protokolo honetan adierazitakoaren erabilera ez zuzenetik eratorritako erantzukizunik.

2. GOGOETA OROKORRAK

Osasun agintarien eta Nafarroako Kirol Institutuaren gomendio guztiei jarraitzen die Nafarroako Xake Federakundeak. Nafarroako Xake Federakundeak pentsatzen du, COVID-19aren agerraldiaren bilakaeran zehar, xakelarien osasun eta segurtasunaren babes eraginkorrek lehentasuna izaten segitu behar duela. Horrexegatik, aurrez aurreko txapelketetan xakelariak eta gainontzeko parte hartzaileak osasuna babesteko neurri

egokiek inguratuta egon daitezen zainduko du. Neurri horiek betetzeko une oro informatuak izanen dira.

Infekzioa kutsatzeko arriskua arras txikiagotzeko bere eskura dituen prebentzio neurri guztiak hartuko ditu Federakundeak. Pertsona guztientzat joko aretoaren sarbiderako kontrola ezarriko da, indarrean dagoen Datuen Babeserako Legeak ezarritakoa gordez.

Lehiaketa bat egin ahal izateko azkeneko baimena eskumena duten agintariei dagokie. Baita parte hartzaileen gehienekoa ezartzekoa ere. Horretarako, une bakoitzean ezarritako derrigorrezko neurriak kontuan hartu beharko dira.

Dokumentu honen funtsezko helburuak klubak, xakelariak, entrenatzaileak eta epaileak jakinaren gainean jarri eta laguntzea dira, aurrez aurreko lehiaketak ahalbidetzen dituzten neurrien inguruan, barnera ditzaten eta COVID-19aren infekzioaren aukerak horrela txikiagotu.

Kutsatzeak ekiditeko jokaera eta arreta irizpideak mantendu behar dituzte xakelariak, entrenatzaileak eta epaileak.

Maskararen erabileraren beharrezkotasuna une bakoitzean indarrean dagoen legeriak ezarriko du, osasun agintariak gomendatutako maskaren erabilera gomedatuz.

COVID-19aren diagnostikoa duten pertsonak, asintomatikoak izanda ere, gaixotasuna gaingitu ez badute eta sendagilearen alta ez badute, xakeko lehiaketa bat ezin izanen dute hasi.

Aurrez aurreko lehiaketa bateko parte hartzaile guztiek protokoloen, prebentzio neurrien eta kontrolaren informazio guztia derrigorrez ezagutu beharko dute. Horrexegatik, Nafarroako Banakako Xake Txapelketan parte hartzeko prebentzio neurriak eta parte hartzeko baldintzak dituen agiria ezagutu, onartu eta horrekiko konpromisoa hartzeko webgunetik jaitsi ahal izanen duten agiri eredu bat bete, sinatu eta Nafarroako Xake Federakundeari helarazi beharko diote.

Arriskuko osasun txostena dutenek muturrera eraman beharko dituzte prebentzio neurriak edo agian ez dute parte hartu behar.

Edozein sintomaren aurrean, edo infektatua egoteko edozein susmoren aurrean, edo infektatutako pertsonekin edo horren susmoa duten pertsonekin kontakturik izan bada, aurrez aurreko lehiaketetan jokatzeari saihestu behar da, guztion onerako.

Lehiaketan zehar koronabirusarekin zerikusirik izan lezaketen sintomak aurkeztuz gero, kirolariak torneoko zuzendaritzari lehenbailehen jakinarazi behar diote, honek beharrezko neurriak hartzeko.

Kirolarien arteko kontaktu fisiko oro debekatuta dago. Ez dute eskua eman behar inongo momentutan, ez partidaren hasieran, ez bukaeran.

Gomendio hauek osasun agintarien eta Nafarroako Kirol Institutuaren aholkuen menpe egonen dira une oro. Denboran zehar hartutako neurriak eta gaurkotzen direnean

Nafarroako Xake Federakundeak izendatutako COVID arduradunak jakinaraziko dizkie klubei, xakelariei, entrenatzaileei eta epaileei.

Balizko kutsatzeari dagokionez, kirol praktikak barnean duen arriskua ezagutu eta bere gain hartu beharko dute parte hartzaile guztiek, hori ez gertatzeko antolatzaileek neurri sorta hartuta ere.

3. JARRAITU BEHARREKO ARAUAK

1.- Zirkulazioa: joko aretora sartu eta ateratzea, komunak, sarbideak eta seinaleak.

Txapelketa jokatu den egoitzara hasi baino 15 edo 20 minutu lehenago joatea gomendatzen da, sarbiderako kontrolean pilaketak ekiditeko.

Sarbideko kontrolera iristen diren pertsona guztiek filiazioaz, Estatuko Nortasun Agiriaz eta harremanetarako telefonoaz informazioa eman beharko dute. Indarrean dagoen Datuen Babeserako Legeak ezarritakoa gordeko duen agiri batean islatuko da hori.

Sarrera eta irteera bideak adierazteko seinaleei jaramon egitea beharrezkoa da. Joko aretoaren sarreran AFORO COVID adieraziko da, parte hartzaileek jakin dezaten.

Taldeka sartzea edo irtetzea debekatuta dago. Baita eraikinaren barruan edo kanpoan taldeak egitea ere.

Sarreretan eta irteeretan pertsonen arteko segurtasun tarteak gordeko dira.

Joko aretora kirolariak banan-banan sartuko dira, ordenean jarritako ilara eginda eta bata bestearengatik bi metrora jarrita.

Komunen erabilera pertsona bakarrak egingen du. Komunera joateko epaileari baimena eskatu beharko diote. Komunetarako sarbidean kontrola ezarriko da, beharrezkoa bada, aldi berean bi pertsonak edo gehiagok erabil ez ditzaten.

Argazkilari baten sarrera onartuko da, aldeztu aurretik NXFren baimena emanda, berarekin edukiera gainditzeko ez bada, webguneko kirol informazioarako beharrezko argazki eta bideo erreportajeak egin ditzan, epaileak mugatutako denboran.

Epaileak edo Torneoeko zuzendariak ahalbidetuko dute beharrezkoa jotzen duten pertsonak sartzea.

2.- Aretoa, komunak eta sarbideak garbitzeko eta desinfektatzeko neurriak.

Joko saio bakoitzaren aurretik enpresa homologatuek joko eremua eta komunak desinfektatuko dituzte.

3.- Jokatzeko materiala desinfektatzea.

Hau txanda bakoitza hasi aurretik egingen da beti.

- Partidetarako beharrezko den jokorako materiala desinfektatzeko beharrezko giza baliabideak eta tresnak jarriko ditu Nafarroako Xake Federazioak.
- Partiden aurretik mahaia eta aulkiak ere desinfektatuko dira. Xake-taulekin, piezekin eta jokorako erlojuekin lainoztagailudun desinfektatzaileak erabiliko dira.

4.- Izaera pertsonaleko babesak.

4.1 Maskarak.

Jokalariek une oro etxetik ekarritako babeserako maskara erabiliko dute. Nahi badute, sarbiderako kontrolean beste maskara bat emanen zaie. Irteeran edo aretoko leku estrategikoan horretarako prestatutako edukiontzian jarri beharko dute maskara, behin partida bukatuta. Era berean, hor jarriko dira garbiketarako papera eta botatzekoa den desinfekzio pertsonalerako erabilitako guztia.

Jokalariek une guztietan maskaraz etorri beharko dute eta denbora osoan hori jantzita egon. Edozein arrazoiengatik jokalaria batek maskara aldatzea behar badu, epaileek beste bat emanen diote, behar den guztietan.

Sartzetik irten arte maskara jantzita eduki behar dute guztiek eta, maskara aldatu behar badute, zorrotz gordeko dute distantzia.

4.2. Hidrogelak.

Aretora sartzean eta partidaren aurretik eta ondoren beharrezkoa da hidrogelak erabiltzea. Federazioak jarriko ditu aretoan, ongi banatuak, hidrogel alkoholikoko ontziak, erabil daitezten. Kirolariei gomendatuko zaie partidan zehar gel horrekin askotan eskuak garbitzea. Jokorako mahaietan eskuragarri izanen dira.

4.3. Gauza pertsonalak.

Kirolariek soilik poltsa txiki bat eraman ahal izanen dute, hor boligrafoak, medikazioa, botatzeko musuzapiak eta higiene pertsonalerako beharrezko beste tresnak eramateko. Edaria botilan eraman ahal izanen da. Erabili ondoren ixteko aukera eman behar du eta poltsan gorde beharko da. Poltsatik kanpo potoak edo hondakinak ezin izanen dira utzi.

Maskara soilik kenduko da edateko (unetxo batzuk), gero berriz azkar batean jantzeko.

Kirolari bakoitzak bere boligrafoa eraman behar du eta beste kirolariek ez du partekatu behar. Partida hasi aurretik epaile laguntzaileei eskatu ahalko diete desinfektatzeko. Baita partidan zehar zorura erori bada ere.

4.4. Agurrak.

Partidak hastean edo bukatzean eskua ematearen agur adiskidetsua bertan behera geratzen da. Kontaktu fisiko oro ekidin behar da.

4.5. Aretoan zirkulazioa.

Kirolariek eserita egon behar dute partidaren zehar edo zutik bere aulkiaren atzetik. Beste partidak ikusteko zirkulatzea debekatuta dago.

4.6. Partiden analisisa.

Partidak bukatzean joko aretoan ezin dira analizatu. Epaileari jakinarazi beharko zaio bukatu dela, planilla sinatuak bil ditzan.

Partida amaitzean jokalariek joko aretoa utzi behar du.

5.- Edukieraren muga.

Ezarritako edukieraren muga une oro beteko da. Horrexegatik, joko aretoaren sarreran agi eta garbi agertuko da edukieraren muga.

Aretoa ezin dira sartu laguntzaileak, monitoreak edo beste edozein pertsona, epaileak edo Torneoko zuzendariak emandako baimenik gabe.

6.- Pertsonen arteko segurtasun tarteak ezartzea.

FEDAk orokorrean ezarritakoak erabiliko dira, jokalarien eta xake taulen artean. Mahaien eta xake taulen arteko tarteak epaileek gainbegiratuko dituzte txanda bakoitzaren aurretik eta osasun agintariek, FEDAk eta FIDEk ezarritakoa zorrotz beteko dute.

7.- Aireztapena.

Aretoak ahal den heinean etengabe aireztatuak egon behar dira. Eguraldiaren zakartasunak hotza ekarrita ere, aretoek **erdi-irekitako leihoak** eduki behar dituzte, ikastetxeetan gertatzen den bezala. Aretoetara berokiekin edo antzeko arrokekin joatea gomendatzen zaie jokalariei.

Arauen derrigortasuna.

Denek bete beharreko arauak dira hauek. Epaile guztiek zorrotz gainbegiratuko dituzte. Adibidez, maskara ongi jarri nahi ez duen jokalaria kanporatzeko erabakia hartu ahal izanen dute, desiragarria ez izanda ere. Parte hartzaile guztiei laguntzarik handiena eskatzen diegu horregatik.

WEBean argitaratuko dugu protokolo hau, joko aretoan ikusgarri egon behar duen da partidak hasi aurretik eta klubei bidaliko diegu jokalarien artean hedatzeko.

Txapelketan zehar puntu baten edozein aldaketa jokalariei eta klubei jakinaraziko zaie denbora nahikoz eta behar den eran.